

Pilota ♦ Iñaki Lizasoren kontra jokatu du gaurko irabazleak

Zeberio II.a-Altuna I.a, final-laurdenen bezperan

Lehia bizia espero da Bingo Londres buruz burukoan

Enekoitz Telleria / Donostia

AURRERA doa etengabeen buruz buruko Bingo Londres txapelketa, eta final-zortzirenetako lehenengo partidua gaur jokatu da, Galarretan. Goi mailako bi pilotariren arteko norgehiagoka da Patxi Zeberio eta Imanol Altuna aurrelariaren artekoa, lehia-ketak dezente aurrera egin duen seinale.

Imanol Altunaren bigarren partidua da txapelketan. Txe-txu Iriarte kanporatuta dator Zeberiorengana, eta, partidu hura apartekoa izan ez zen arren, uda honetako pilotari sasoikoena da aurrelari amezketarra, zalantzarik gabe. Behin eta berriz estelarrak jokatu eta joko ona egi-teak ematen duen konfiantzarekin kantxaratuko da gaur.

Patxi Zeberiorenean uda ez doa gaurko kontrarioarena bezain ederki. Buruz buruko txapelketaz baliatu nahiko du gaur bere benetako maila



ARTXIBOKOA

Imanol Altuna joko aparta ari da egiten aurtengo udan.

berreskuratzeko. Baliabide handiko bi erremontista dira. Partidu bizia izango da.

Txapelketakoaren ostean, Ezkurak eta Txikurik Altuna II.aren eta Iriarteren kontra jokatu dute. Beste partida

zail bat Ezkurra txapeladuna-
rentzat.

Atzoko Galarretako partidu nagusian, 23 tanto baino ez zituzten egin Elizalde eta Iriartek, Kalonge eta Eizagirreren kontra (23-40).

gaurko partiduak

ZARAUTZ. 16:45 (TELE 5).

• Ariznabarreta-Rai / Agirre-Barriola
• Alustiza-Errandonea / Nagore-Armendariz.

AMURRIO. 21:30.

• Urionaguena-Nalda III.a /
Errandonea II.a-Pascual • Koka-Taberna /
Barberito VI.a-Zearra.

MALLABIA. 22:30.

• Berasaluze VII.a-Auxkin / Atxa-Milikua
• Capellan-Elkoro / Goñi II.a-Zezeaga.

LA MATILLA. 18:00.

• Ortiz-Alberdi III.a / Gabarri anaiak
• Haritz-Almendoz / Badiola III.a-Hirigoien.

URUÑUELA. 18:30.

• Txafee-Gastesi / Gonzalez-Matute III.a
• Berraondo-Apeztegia /
Galarza V.a-Arroyo II.a.

MAÑARIA. 12:00.

• Bizkaiko I. Opena:
Zabala-Galarza / Aio-Bazeta

GALARRETA. 16:00.

• Agirresarobe-Imaz /
Zeberio I.a-Zestau III.a • Bingo Londres
Txapelketa: Zeberio II.a / Altuna I.a
• Ezkurra-Txikuri / Altuna II.a-Iriarte
• Elizalde-A.Lekunberri / Matxin-Etxabe.

GERNIKA. 16:45.

• Artetxe-Kirru / Beaskoetxea-Goia
• Mendi-Enbil / Konpa-Erkiaga
• Kontinente Arteko Txapelketa
(finalerdia): Etxalus-Aranburu /
Alberdi I.a-Osa.

MIARRITZE. 17:00.

• Egiguren-Felix / Sorozabal-Arriaga.

txokoan

Oscar Lasaren nagusitasunak erabaki zuen Zarauzkoa

Atzeko koadroetan Oscar Lasak erakutsitako sasoia eta Iñaki Esainek sakearekin egindako sei tantoak erabakigarriak izan ziren atzo, Zarauzko Aritzabatalde frontoian. Lasa eta Esain 19-22 gailendu ziren Eugi eta Otxandorenaren kontra. 90 minutuko partidua izan zen, eta ez zuen inork abantaila erabakigarriarik lortu 17-21 jarri ziren arte. Eugik sasoiko dabilela erakutsi zuen.

Kontinente arteko Txapelketako finalerdia gaur

Eusko Basquek asteburu honetarako egin dituen aldaketen ostean —lesioak eta partidu pilaketak eraginda—, gaur jokatu da, Gernikan, Kontinente arteko Zestapunta Txapelketako lehenengo finalerdia:

Etxalus-Aranburu eta Alberdi I.a-Osa. Gaurko jaialdiko hirugarren partidua da. Urrezko Guante txapelketan, bestalde, Bereikua-Erkiagak finalerdietarako txartela lortu dute eta Uriarte —osatzen bada— eta Felixen kontra jokatu dute hurrena.

Goñi II.a Mallabian

Aspek gaurko antolatu dituen hiru jaialdietatik garrantzitsuena da Mallabiko. Mikel Goñi izango da, beste behin, izar nagusia bertan. Zezeagarekin jokatu du, Capellan eta Elkororen kontra. Estelar ederra da. La Matilla eta Uruñuelan jokatu dira Asperen beste bi jaialdiak. Asegarcek, berriz, Zarautzen du funtzio nagusia —Amurrioren beste—, Alustiza-Errandoneak eta Nagore-Armendarizek —osatu zaio eskuin esku-ko lesioa— jokatu dute Zarauzko estelarra.

laburrean



AL BERHMAN / AP

Sampras eta Kafelnikov Cincinnatiako finalerdietan.

Dagoeneko finalerdietan da Cincinnatiako tenis txapelketa —urteko zazpigarren Super 9a—. Sampras eta Kafelnikov izan ziren atzo txartela lortzen lehenengoak. Agassi Kuerten eta Chang-Rafter partiduetatik irtengo dira euren arerioak.

HARRI-JASOTZEA

■ Izeta II.ak belauneko lesio bihurria du eta, ondorioz, amaitu zaio uda parteko jarduna

AIKO Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.ak* belauneko lesio larria du, eta, gutxienez, bizpahiru hilabetetan plazetatik kanpo egon beharko du. «Hasieran uste genuen meniskoa izango zela, baina badirudi kartilagoa dela; bihurriagoa oraindik», esan zuen Izetak. Igandean geroztik ez du ezer egiterik izan, eta min handia sentitzen duela adierazi zuen. Aurretik sentitzen omen zuen belauna minduta, baina Donostiako Igeldo Harria txapelketa amaituta areagotu egin omen zitzaion. Heldu den abuztuaren 30ean egingo dio ebakuntza Atxalandabaso sendagileak. Hortaz, ez du Gernikan aritzerik izango heldu den astelehenean, eta ezta Euskal Herriko Txapelketan ere.

■ Mallabiko Txapelketa bihar jokatu da, eta Egi, Izeta III.a, Aitzeta eta Urpe ariko dira

HARRIJASOTZAILA gazteekin eta harri txikiekin dihardutenen-tzat antolatu ohi dute Mallabiko Txapelketa. Bihar jokatu da (17:30), eta lau kirolari ariko dira lehian. Gipuzkoatik hiru ariko dira: Javier Arriola Egi Elgoibarkoa, Jexumari Iruretagoiena *Izeta III.a* Aiakoa eta Jon Beristain Aitzeta, Mutrikukoa. Haiekin batera, Bernardo Ureta Urpe bizkaitarrak jardungo du. Bi harri erabiliko dituzte: 100 kiloko zilindro zaharra eta 100eko bola. Bakoitzarekin bosna minutuko txandak egin beharko dituzte.

SASKIBALOA

■ Cafes Aitona saskibalo taldeak abuztuaren 17an egingo du bere aurkezpena

AURTENGO Cafes Aitonako lehen eta bigarren taldeek heldu den asteartean egingo dute denboraldi honetako aurkezpena. Ekitaldia asteartean izango da, Donostiako Jose Antonio Gasca kiroldegian, arratsaldeko 18:15etan. Igor Ormazabal, Luis Rojo, Fernando Ortega, Xabier Chocarro eta Aitzol Almendoz dira iazko denboralditik jarraitzen duten jokalaririk bakarrak. Iker Lopez pibotaren etorrera izango da berrikuntza aipagarriena, iaz Tarragonako Valls taldean aritu ondoren.

IGERIKETA

■ Igerilari txinatar bat Mantxako itsasartea zeharkatzen ahaleginduko da

CHEN XIONGGUANG 38 urteko txinatarrak abuztuaren 22an ekingo dio Mantxako itsasartea igerian zeharkatzeko lantegi zailari. Igeriketa zaletasun du fabrikako langile horrek, eta bere xedea lortuko balu, Frantzia eta Erresuma Batua banatzen dituen tartea igarotzen duen lehenengo txinatarra litzateke. Oraingoan 400 bat igerilarik lortu dute balentria hori.